

Denon artean

Ekintza

IKASTETXE AZTARNA EKOLOGIKOA



Aztarna ekologikoaren kontzeptua zuzenean loturik dago naturako ondasunen erabilerarekin eta kontsumoarekin. Gizaki bakoitzaren aztarna aipatu ohi da; hala, bakoitzari dagokigun Lur azalera eta egiten ditugun kontsumoak kalkulatu ondoren, ez da harrizkoa honako hau entzutea: “Bi edo hiru mundu, edo gehiago, beharko genituzke oraingo bizimoduari eusteko”.

Beraz, gogoeta egin beharra daukagu egoera horretaz:

Nori legokioke neurritz kanpo gastatzen duguna banaketa bidezkoa balitz? Normalean erabiltzen ditugun ondasunen laurdenarekin bizitzerik ba ote dago? Zenbait jende horrekin (eta gutxiagorekin) bizi da gaur egun.

Gizaki bakoitzaren aztarna ekologikoaz ez ezik, etxe, ikastetxe eta abarren aztarnaz ere egin dezakegu gogoeta. Begira diezaiegun gure ikastetxeko datuei, eta, hartara, kalkula dezagun gure aztarna.

Saiatu galdera hauei erantzuten. Taldeka egin dezakezue lan. Horretarako, informazioa jasotzeko materialak (galdera-sorta, datu-bilketa...) prestatu behar dituzue.

Lehenik eta behin, informazio hau jaso behar dugu:

Gure ikastetxeari buruzko datuak

| | |
|--|--|
| Ikasle kopurua | |
| Irakasleen eta langile ez-irakasleen kopurua | |
| Eraikitako azalera (adibidez: 30 ikaslerentzako gela, 50 m ²) | |
| Patioaren eta lorategiaren azalera (Adibidea: 300 m ² -ko saskibaloi-pista) | |

Mugikortasuna eta garraioa

| | |
|--|--|
| Ikastetxerako batez besteko distantzia (oinez ordu erdi baino gutxiagora bizi diren ikasleen ehunekoa) | |
| Erabilitako garraio-sistema | |

HELBURUAK

Ikastetxearen aztarna ekologikoa kalkulatzeko eta hura murrizteko konpromisoak adostea

MATERIALA

Tu huella ecológica. La huella ecológica en centros educativos. Nafarroako Gobernua (CDa). Ingurugelan duzue.



Klimatizazioa

| | |
|---|--|
| Klimatizazio-mota (aire egokitua, berotze-sistema...) | |
| Klimatizazioaren erregulazioa (egokia, gehiegizkoa...) | |
| Energia berriztagarriak aprobetxatzen al dira klimatizaziorako? (bai, ez) | |

Energia-sorkuntza

| | |
|---|--|
| Energia berriztagarriak aprobetxatzen al dira energia sortzeko? (bai, ez) | |
|---|--|

Ura

| | |
|---|--|
| Ba al dago ura aurrezteko eta/edo berrerabiltzeko sistemarik? (bai, ez) | |
|---|--|

Papera

| | |
|--|--|
| Paper birziklatua (%) | |
| Bi aldetatik erabiltzen al da? (bai, ez) | |

Hondakinak

| | |
|---|--|
| Papera bereiz jasotzen al da? (bai, ez) | |
| Ontziak bereiz jasotzen al dira? (bai, ez) | |
| Minimizazioa. Hondakin gutxiago sortzeko ahalegirik egiten al da? (bai, ez) | |

Argiztapena

| | |
|---|--|
| Argiztapen artifizialaren erabilera (handia, txikia...) | |
| Bonbilla mota (normalak, kontsumo txikikoak...) | |

- 2** Jasotako informazioarekin eta Tu huella ecológica CDaren laguntzarekin (ikus materialaren atala), ikastetxeko aztarna ekologikoa kalkulatu dugu.
- 3** Nola murriztu gure aztarna? Seguru zenbait gauza ongi egiten ari zaretela jada; beste batzuk, berriz, hobetu egin beharko dira. Hobekuntza-proposamenak egin eta konpromisoak hartuko ditugu. Animo!
- 4** Beti bezala, hainbat bide (Txoko berdea, ikastetxeko aldizkariak, web-orria...) erabiliko ditugu gure kalkuluak eta hartutako konpromisoak plazaratzeko.